

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
1. a) Atzo, goizeko 01:15 inguruan gertatu zen eraso, Parte Zaharreko kale nagusiko **ezkaratz** batean.
b) Atzo, goizeko 01:15 inguruan gertatu zen eraso, Parte Zaharreko kale nagusiko **eskaratz** batean.
 2. a) Uztaillean **erroparen** eta oinetakoen merkatzeak eragin zuen prezioak horrenbeste jaitea, baina abuztuan ia amaitu egin dira deskontuak merkealdietan.
b) Uztaillean **arroparen** eta oinetakoen merkatzeak eragin zuen prezioak horrenbeste jaitea, baina abuztuan ia amaitu egin dira deskontuak merkealdietan.
 3. a) SOS Arrazakeriak uste du "datuak eta informazioa" bilatzen zutela lapurrek, dirua baino gehiago. Gurutze **svastika** bat margotu zuten lapurrek, lokalaren pareta batean.
b) SOS Arrazakeriak uste du "datuak eta informazioa" bilatzen zutela lapurrek, dirua baino gehiago. Gurutze **esbastika** bat margotu zuten lapurrek, lokalaren pareta batean.
 4. a) Bi pertsona adoretsu ikusi ditut hor, bikotekideak antza, munduari, gure begiradei erantzunez, **errukigarri** sentitu gabe.
b) Bi pertsona adoretsu ikusi ditut hor, bikotekideak antza, munduari, gure begiradei erantzunez, **errukarri** sentitu gabe.
 5. a) **Errinozero** iletsua Eurasiako estepa hotzetan bizi izan zen Pleistozenoan, eta duela 8.000 urte inguru galdu zen.
b) **Errinozeronte** iletsua Eurasiako estepa hotzetan bizi izan zen Pleistozenoan, eta duela 8.000 urte inguru galdu zen.
 6. a) Euskal paisaia-pinturaren eskola aberatsaren azken gordelekua Baztanen dago, eta gordeleku hori **erakusleiho** bilakatzen da abuztuan.
b) Euskal paisaia-pinturaren eskola aberatsaren azken gordelekua Baztanen dago, eta gordeleku hori **eskaparate** bilakatzen da abuztuan.
 7. a) Hurrengo urteko martxoan, **eskabazioaren** laugarren fasea amaituta, aztarnategiko aurkikuntzen berri emango dute Gasteizko Letren Fakultatean antolatuko dituzten jardunaldietan.
b) Hurrengo urteko martxoan, **indusketaren** laugarren fasea amaituta, aztarnategiko aurkikuntzen berri emango dute Gasteizko Letren Fakultatean antolatuko dituzten jardunaldietan.
 8. a) Lila Littlewolfek modu bat proposatuko dio dirua **erraz** irabazteko: legez kanpoko etorkinak Kanadatik AEBetara eramatea, Saint Lawrence ibai izoztuan zehar.
b) Lila Littlewolfek modu bat proposatuko dio dirua **errez** irabazteko: legez kanpoko etorkinak Kanadatik AEBetara eramatea, Saint Lawrence ibai izoztuan zehar.

A R I K E T A K

9. a) Horien artean legatza saltsa berdean (zainzuri eta ilarrekin), mihi-arraina labean txanpiñoi eta orburuekin eta **errodaballo** egosia barazkiekin aholkatuko nituzke, adibidez.
b) Horien artean legatza saltsa berdean (zainzuri eta ilarrekin), mihi-arraina labean txanpiñoi eta orburuekin eta **erreboilo** egosia barazkiekin aholkatuko nituzke, adibidez.
10. a) EA, EB, Aralar eta PNV batuta ere, **eskainu** baten faltan leudeke haien parera heltzeko. Aulki-jokoak erabakiko du nor izango den lehendakari.
b) EA, EB, Aralar eta PNV batuta ere, **jarleku** baten faltan leudeke haien parera heltzeko. Aulki-jokoak erabakiko du nor izango den lehendakari.
11. a) **Ertzaingoa** sutea ikertzen ari da, baina nahita eragindakoa izan zela uste du.
b) **Ertzaintza** sutea ikertzen ari da, baina nahita eragindakoa izan zela uste du.
12. a) Herritarrak berriro deitu zuen, baina telefona **esegi** zioten. "Osasunbidea... Kaixo, arratsaldeon" esan, eta **esegi** egin zioten hiru aldiz.
b) Herritarrak berriro deitu zuen, baina telefona **eseki** zioten. "Osasunbidea... Kaixo, arratsaldeon" esan, eta **eseki** egin zioten hiru aldiz.

2

Saia zaitez identifikatzen honako esaldietan Iñigo Roquek "Eskailera-maila atzendua: puntu eta koma" artikuluan proposatutakora gehien hurbiltzen direnak.

1. a) Hainbat ikastarotan matrikulatzeko aukera daukazu: ingelesa, frantsesa eta italiara; buztzingintza, margolaritza eta argazkigintza, eta dantzarekin lotutako beste hiruzpalau.
b) Hainbat ikastarotan matrikulatzeko aukera daukazu: ingelesa, frantsesa, italiara, buztzingintza, margolaritza, argazkigintza, eta dantzarekin lotutako beste hiruzpalau.
c) Hainbat ikastarotan matrikulatzeko aukera daukazu: ingelesa, frantsesa eta italiara, buztzingintza, margolaritza eta argazkigintza eta dantzarekin lotutako beste hiruzpalau.
2. a) Honakoa esan dezakegu egoera horretan dagoen fitxategiari buruz: baimen guztiak dituela jabeak, saioa berrabiarazi behar denean, kudeatzaileak exekuta dezakeela eta erabiltzaileek irakurri baino ezin dutela egin.
b) Honakoa esan dezakegu egoera horretan dagoen fitxategiari buruz: baimen guztiak dituela jabeak, saioa berrabiarazi behar denean kudeatzaileak exekuta dezakeela eta erabiltzaileek irakurri baino ezin dutela egin.
c) Honakoa esan dezakegu egoera horretan dagoen fitxategiari buruz: baimen guztiak dituela jabeak; saioa berrabiarazi behar denean, kudeatzaileak exekuta dezakeela eta erabiltzaileek irakurri baino ezin dutela egin.
3. a) Gaztelaniazko *llamar la atención*ek adiera bat baino gehiago har ditzake euskaraz; hala ere, behin eta berriz jotzen dugu *arreta deitu* erdarakadara.
b) Gaztelaniazko *llamar la atención*ek adiera bat baino gehiago har ditzake euskaraz, hala ere; behin eta berriz jotzen dugu *arreta deitu* erdarakadara.
c) Gaztelaniazko *llamar la atención*ek adiera bat baino gehiago har ditzake euskaraz, hala ere behin eta berriz jotzen dugu *arreta deitu* erdarakadara.
4. a) Aurreko diskoa Gironan grabatu genuen, Victor Nublaren estudioan, 2007ko udan, oso esperientzia atsegina, baina ez genuen leku berean grabatu nahi berriro.
b) Aurreko diskoa Gironan grabatu genuen, Victor Nublaren estudioan, 2007ko udan, oso esperientzia atsegina; baina ez genuen leku berean grabatu nahi berriro.
c) Aurreko diskoa Gironan grabatu genuen; Victor Nublaren estudioan, 2007ko udan, oso esperientzia atsegina, baina ez genuen leku berean grabatu nahi berriro.

5. a) Laburduren kasuan, zerrendak eta horrelakoak egiteko erabiltzen direnez, ohikoena da ez deklinatzea, testuaren barruan; beti ere, ahalik eta gutxien erabili behar ditugu.
 b) Laburduren kasuan, zerrendak eta horrelakoak egiteko erabiltzen direnez, ohikoena da ez deklinatzea; testuaren barruan, beti ere, ahalik eta gutxien erabili behar ditugu.
 c) Laburduren kasuan, zerrendak eta horrelakoak egiteko erabiltzen direnez, ohikoena da ez deklinatzea, testuaren barruan, beti ere, ahalik eta gutxien erabili behar ditugu.
6. a) Horrek bi ondorio ekarriko ditu: alde batetik irakaskuntza zerbitzatzeko esparruak garatzea, bestetik normalizazioaren kontzeptua erabilerari lotzea.
 b) Horrek bi ondorio ekarriko ditu: alde batetik, irakaskuntza zerbitzatzeko esparruak garatzea; bestetik, normalizazioaren kontzeptua erabilerari lotzea.
 c) Horrek bi ondorio ekarriko ditu: alde batetik, irakaskuntza zerbitzatzeko esparruak garatzea, bestetik, normalizazioaren kontzeptua erabilerari lotzea.
7. a) Udaltzak gaur aztertu ditu aurrekontuak eta mozioak hurrengo baterako utzi ditu.
 b) Udaltzak gaur aztertu ditu aurrekontuak; mozioak hurrengo baterako utzi ditu.
 c) Udaltzak, gaur aztertu ditu aurrekontuak; eta mozioak hurrengo baterako utzi ditu.



Sinonimoak eman:

1. Euskararen **ikuspegi** soziolinguistikoa azaltzeko asmoz hainbat liburu prestatu dira.
2. Foru Aldundiko Kultura Sailak euskara biziberritzea xede duten 1.201 **egitasmo** gauzatzeko diru-laguntza eman zuen iaz.
3. Dantza munduan perfekzioa da **jomuga**, lortzea ezinezkoa bada ere.
4. Ekintzaile arrakastatsuen hiru ezaugarri pertsonalak **pertseberantzia**, optimismoa eta talentua dira.
5. Jolas-jardueretarako lokaletako ikuskizunak eta segurtasun-neurriak kontrolatzea eta **ikuskatzea** da zerbitzu horren funtzioetako bat.
6. Eragile txiki eta handien **engaiamenduan** oinarritzen da hitzarmena: bakoitzak bere ahalen eta boronda-tearen arabera euskararen aldeko neurriak hartu beharko ditu.
7. Eusko Jaurilaritzak hirukoitzu egin ditu lana eta familia **uztartzeko** programetan ematen dituen laguntzak bost urtetan.
8. Deustuko zubian egokitzeko eta hobetzeko beharrak egiten ari dira egunotan, eta **arrakala** bat aurkitu dute beharginek errail batean.
9. Euskararen transmisioa **bermatu** ondoren, erabilera handitzea dagokigu.
10. Lehenengo aldia da finala Bizkaian ospatzen dena eta dagoeneko **agortuta** daude sarrera guztiak.
11. Bost estatuk egiten dute muga lurralde horrekin eta bertako baliabideak **ustiatzeko** ahaleginean ari dira aspaldian.
12. Eskola-gaztearen trebakuntzaren baitan, alor **saihestezin** bat da publizitatea diskurtso hirukoitz moduan aztertzea.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

- 1. a 7. b
- 2. b 8. a
- 3. a 9. b
- 4. b 10. b
- 5. a 11. b
- 6. a 12. b

2 Saia zaitez identifikatzen honako esaldietan Iñigo Roquek "Eskailera-maila atzendua: puntu eta koma" artikuluan proposatutakora gehien hurbiltzen direnak.

- 1. a 5. b
- 2. c 6. b
- 3. a 7. b
- 4. b

3 Sinonimoak:

- 1. ikuspuntu, perspektiba
- 2. proiektu
- 3. helburua, xedea, asmoa
- 4. iraunkortasuna, jarraikitasuna
- 5. azterzea, ikertzea
- 6. konpromisoan, erantzukizunean
- 7. lotzeko, bateratzeko, adosteko
- 8. pitzadura, zartadura
- 9. finkatu, zehaztu
- 10. ahituta, amaituta, xahututa
- 11. esplotatzeko, baliatzeko
- 12. utziezin, bazterrezin